

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3986

173/2015 DEKRETUA, irailaren 15ekoa, zeinen bidez kargutik kentzen baitira Pasaiaiko Portu Agintaritzako Administrazio Kontseiluko kide batzuk, eta beste batzuk izendatzen.

Irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen du. Atariko titulua II. kapituluan, interes orokorrekoen artean sailkatutako portuak arautzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bilboko eta Pasaiaiko portuak sartzan dira interes orokorrekoen artean.

Estatuaren lurraldea antolatzeko modua eta lurralde horretako interes orokorreko portuek autonomia erkidegoetan duten eragin ekonomiko eta sozial handia kontuan hartuta, aipatutako legegintzako errege-dekretuak beharrezko neurriak ezartzen ditu erkidegoek portuetako agintaritzaren antolakuntzako egituretan parte-hartze handiagoa izan dezaten. Izan ere, agintaritza-egitura horiek portuak artezten dituzten organoak dira.

Hain zuzen ere, honela diote Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikulua 1. eta 2. paragrafoek:

«1.– Administrazio Kontseiluak honako kide hauek izango ditu:

a) Erakundeko presidentea, Administrazio Kontseiluko buru izango dena.

b) Berezko kide bat; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Gutxienez 10 bokal, eta gehienez 13. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da bokal-kopurua. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiriei dagokie kopuru hori ezartzea, baita bokalak izendatzea ere.

2.– Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, c) idatzi-zatian aipatu diren bokalak izendatzerakoan, honako irizpide hauek errespetatuko dituzte:

a) Itsas kapitaina eta beste hiru bokal izango dira Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkari Kontseiluan. Hiru bokal horietako bat estatuaren abokatu bat izango da, eta beste bat Estatuko Portuak Erakunde Publikokoa.

b) Presidenteaz gain, lau bokalek ordezkatzeko dute Autonomia Erkidegoa.

c) Kanariar Uharteetan, kabildo bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear Uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuaren zerbitzugunea euren mugartean duten udalek Kontseiluko gainontzeko kideen % 33ko ordezkari izango dute. Zerbitzugunea udalerrri batean baino gehiagotan kokatuta egonez gero, lehenik, Portuko Agintaritzak administratutako portuari edo portuei izena ematen dion udalerriri edo udalerriei egokituko zaie ordezkari; ondoren, gainerako udalerriei, zerbitzugu-nearen eraginpean duten azalerarekiko proportzioan.

e) Honako hauen ordezkari izango dira Kontseiluko gainerako kideen % 66a: merkataritza-, industria- eta nabigazio-ganberak –egun, merkataritza-, industria-, zerbitzu- eta nabigazio-ganbera

ofizialak–; enpresa- eta sindikatu-erakundeak, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoak.

Administrazio Kontseiluan ordezkariak duten administrazio publikoek, erakundeek eta organismoek proposatuta egingo da Kideen izendapena, nahitaez. Estatuko Administrazio Orokorraren kasuan, Estatuko Portuak izeneko erakunde publikoaren lehendakariak egingo du proposamena.

Administrazio Kontseiluko kideen izendapenak, lehenengo ataleko c) idatzi-zatian aipatzen denak, lau urteko indarraldia izango du. Izendapena berriro ahal izango da, hargatik eragotzi gabe hurrengo lerrokadan ezarritakoa.

Kontseiluko bokalak kargutik kentzeko erabakia autonomia erkidegoko organo eskudunak hartuko du, betiere bokal horiek ordezkatzeko dituzten antolakundeek, organismoek eta erakundeek hala proposatuta.

Ondorioz, Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legean, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 4. artikuluan, eta Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2015eko irailaren 15eko bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Aipatu entitate eta erakundeen ordezkariak diharduten honako hauek kentzea Pasaiaiko Portu Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide kargutik:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkariak:

– Iñaki Errazkin Vitoria jauna.

Pasaiaiko Udalaren ordezkariak:

– Amaya Aguirregabiria Alberdi andrea.

Errenteriako Udalaren ordezkariak:

– Maite Peña López andrea.

2. artikulua.– Aipatu entitate eta erakundeen ordezkariak diharduten honako hauek izendatzea Pasaiaiko Portu Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkariak:

– M.^a Soledad Garmendia Beloqui andrea.

Pasaiaiko Udalaren ordezkariak:

– Izaskun Gómez Cermeño andrea.

Errenteriako Udalaren ordezkariak:

– Julen Mendoza Pérez jauna.

2015eko irailaren 23a, asteazkena

AZKEN XEDAPENA

Pasaiako Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari izendatutako kide berriak nor diren jakinarazten zaionetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko irailaren 15ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.